



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Espte. zk:	2018IKTH0001
Azalpena:	Udaltzaingoarentzat ibilgailu elektrikoa erostea

534/ 2018 DEKRETUA

IKUSIRIK Oarso Car S.L. enpresa bakarrik aurkeztu dela udaltzainen kotxeko honiketarako lehiaketara.

IKUSIRIK Oarso Car S.L. enpresak aurkeztutako A gutunazaleko dokumentazioa ordezeko Udal Idazkariak aztertu duela eta Administrazio Klausula Partikularren 9. klausulan eskatutako agiri guztiak aurkeztu diren begiratu ondoren, egiaztatu duela ez dela guztia aurkeztu. Baldintza administratiboetan, 9.4 atalean hain zuzen ere, kaudimen teknikoa edo profesionala modu honetan egiaztatzea eskatzen zitzaien:

“4).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.h

Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, azken urtean egindako horniketa nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, zenbatekoak, datak eta horniketen hartzaileak (publikoak edo pribatuak) azalduz. Egindako hornikuntzak organo eskudunak egindako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzekoduna sektore publikoko entitate bat denean, edo erosle pribatu bat denean, berak jaulkitako ziurtagiri baten bitartez, eta ziurtagiri hori ez badu, enpresaburuaren aitopen baten bitartez.

Eskatu beharreko gutxienekoa: aurkeztutako dokumentazioa aztertuta ondorioztatu behar da azken urtean enpresak kontratu honen gaiaren eta aurrekontuaren antzeko BOST HORNIKETA egin dituela. Zenbaketarako, horniketak batu ahal izango dira eskatzen den gutxieneko aurrekontua lortzeko.”

IKUSIRIK Oarso Car S.L. enpresak ez duela behar bezala egiaztatu azken urtean BOST HORNIKETA egin dituela eta atal hori zuzentzeko emandako epean ez zuela zuzendu.

KONTUAN HARTURIK Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen eta Sektore publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateraginaren Bigarren xedapen gehigarria jarraiki, kontratu honen zenbatekoaren arabera, esleipena alkateari dagokiola, baina Astigarragako kasuan, 73/2017 Dekretuan, 62.000 eurotik beherako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta ematea, Juan Martín Arregui Sagües kontrataziorako zinegotzi delegatuaren esku utzi dela.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Oarso Car SL lehiaketatik kanpo uztea, ez duelako egiaztatu lizitazio honetan parte hartzeko ahalmen eta kaudimen nahiko duela. Eta ondorioz, lehiaketa hutsik deklaratzeara.

Bigarrena.- Oarso Car SL enpresari jakinaraztea lehiaketa hutsik gabeko jo dela.

Hirugarrena.- Udaltzaingoarentzat auto berria erosteko lehiaketa berria egitea, horretarako baldintza administratiboan eta teknikoan beharrezkoak diren egokitzapenak eginaz. Hain zuzen, lehendabizikoan lege berriari egokitzea, eta bigarreanean (teknikoan), krokadura bolaren beharra eta erreforma puntu mota moldatzearena..

Astigarraga, 2018ko maiatzaren 07a

Juan Martín Arregui Sagües
obra eta kontrataziorako zinegotzi delegatua